



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2000ko irailaren 25ean

74 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta bertan eraikitzeko prozesua arautzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

D SAILA:

Hitzarmenak:

- Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofia ospitalean hartzeari buruzkoa (7. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Mozioa, Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001. urteko aurrekontuetan sartzeko ikastetxe itunduetako langile irakasle ez diren lanariak (10. or.).

G SAILA:

Txostenak, Deialdiak, eta Parlamentuko Informazioa:

- Gelazainen kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza-postua betetzeko deialdia. Izendapena (12. or.).

H SAILA:

Bestelako Textu Arau-emaileak:

—8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. Aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea ([13. or.](#)).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Zahar-etxeetako egonaldiak finantzatzeko erabiltzaileek ordaindu beharrekoa arau-

tzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2000ko irailaren 29ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektua

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Garapenaren aldeko lankidetzari buruzko Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkez-

teko epea **2000ko irailaren 29ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta bertan eraikitzeko prozesua arautzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

“Biltzarreko Erregelamenduko 106. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Sarrigurengo udalez gaindiko planeamendu sektorialak ukituriko eremua urbanizatu eta bertan eraikitzeko prozesua arautzen duen

Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2000ko irailaren 29ko eguerdiko hama-biak arte** luzatzea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena. Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena. Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

LOREG delakoaren 65.3 artikulua aipatzen duen alderdi, federazio eta koalizioen Batzordeak, Probintziako Hauteskunde Batzordeari RTVEk doan ematen dituen telebista tarteetan banaketa aurkezteko, hauteskundeetan parte hartzen duten

alderdien boto ponderatuekin hartzen ohi dituen erabakiak.

Banaketa sistema hau boto gehien duten alderdiak ados jarrita egiten da, LOREGaren eta Nafarroako Parlamentuaren hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/86 Foru Legearen asmoaren eta hitzaren kontrakoa bada ere. Horren arrazoia da TVEk, bere kateetan eta ordutarteetan, Nafarroako Parlamentuko hauteskundeetan parte hartzen duten alderdi eta koalizioei doako publizitateko minutu batzuk ematen dizkietela, eta boto gehien duten alderdiek beren hautagai-zerrendetarako denbora banatu eta tarte onenak hartzen dituztela, eta horrela, alderdi txikiak behartzen dituzte beren emanaldiak ikus-entzule gutxien dituzten kate eta denbora tarteetan eskaintzera.

Halere, azaroaren 17ko 16/86 Foru Legearen 24. artikulua haxe xedatzen du:

“Titulartasun publikoko komunikabide bakoitzean eta programazio esparru desberdinetan hauteskunde propagandarako eskaintzen diren doako tarteak Nafarroako Hauteskunde Batzordeak banatuko ditu hautagai-zerrenden artean, honako baremo honen arabera:

a) Hamar minutu hautesle-elkarteendako.

b) Hamar minutu, Nafarroako Parlamenturako aurreko hauteskundeetara aurkeztu ez ziren alderdi, federazio eta koalizioendako edo, aurkeztu baziren ere emandako baliozko botoen % 3 baino gutxiago erdietsi ez zutenendako.

c) Hogei minutu, Nafarroako Parlamentuko aurreko hauteskundeetan parte hartu eta emandako baliozko boto guztien % 3tik %15era bitarte lortu duten alderdi, federazio eta koalizioendako eta hauteskunde horietara aurkeztu ez baziren ere, Probintziako Hauteskunde Batzordeari desgindako Parlamentuan hiru foru parlamentari, gutxienez, dituztela egiaztatzen dioten alderdi, federazio eta koalizioendako.

d) Hogeita hamar minutu, Nafarroako Parlamentuko aurreko hauteskundeetara aurkeztu ziren eta aurreko idatz-zatian aipatzen den boto kopuruaren % 15 baino gehiago eskuratu duten alderdi, federazio eta koalizioendako”.

Ondorio hauetarako, Legearen arabera hauteskunde deialdi bakoitzean eman beharreko minutuen batura RTVEk eskainitakoaren adinakoa izan beharko da, doako tartea handitu edo murriztu ez daitezen, hauteskunde prozesuan aurkeztu diren hautagai-zerrendetako baten alde edo kontra ez egiteko.

Lehenago aipatutako foru legeriaren arabera alderdiei dagozkien tarteen banaketa LOREGaren 67. artikuluan adierazitakoari jarraikiz egiten da. Honako hau dio artikulua horrek:

“Hauteskundeetara aurkeztu diren alderdi, federazio edo koalizio guztiek hauteskunde propagandarako tarte batzuk izateko eskubidea dute, Lege honetan aurreikusitakoarekin bat; tarte horiek noiz eta zein ordenatan eman zehazteko, eskumena duen Hauteskunde Batzordeak kontuan hartuko ditu alderdi, federazio edo koalizioen lehentasunak, izaera bereko aurreko hauteskundeetan lortu zuten boto kopuruaren arabera”.

Aipatutako artikulua aintzat hartuta, hauteskunde propagandarako tartea noiz eta zein ordenatan eman zehazteko oinarritzat lortutako botoen bitartez dituzten jarlekuen kopurua hartu beharko litzateke, LOREGaren 163. artikulua berak ezartzen duen bezala. Ordenatu beharreko tarteen kopurua Nafarroako Parlamentuko jarlekuena baino handiagoa den kasurako LOREGean xedaturiko esleipen ordena bete beharko da. Bestela, alderdi handiek nagusikeriaz joka dezakete eta, elkarrekin ados jarrita, tartea beraien hautagai zerrenden mesedetan soilik banatu.

Gai hauetan bidegabekeriak saihesteko, RTVEk Nafarroan duen lurralde zentroak doako

tarteetarako eskaini beharko dituen minutuen kopurua izanen da aurkeztu diren hautagai zerrendei erantzuteko behar direnak kalkulatzetik ateratzen dena betiere Legeak dioenari jarraikiz. Era berean, hautagai zerrenda bakoitzak aukeratu dituen tarte horien banaketa D’Hont-en Legeak jarlekuak esleitzeko ezartzen duen sistemaren bidez egiten da.

Artikulu bakarra. Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/86 Foru Legearen 24. artikuluari bi idatz-zati gehitzen zaizkio, testu honekin:

2. Nafarroan RTVEk duen lurralde zentroko zuzendaritzak, hauteskunde deialdi bakoitzean, parte hartzen duten hautagai zerrenda guztiendako tarteei, aurreko idatz-zatian aurreikusitakoei, erantzuteko behar direnak kalkulatu ateratzen den minutu kopurua eskainiko du.

3. Artikulu honek aipatzen dituen doako tartea banatzeko formularen irizpideak Hauteskundearen Araubide Orokorren Lege Organikoaren 163. artikulua jarlekuen adjudikaziorako ezarritako berberak izanen dira. Horretarako, alderdien ordezkariak tarte bakoitzaren katea, eguna eta ordua aukeratu dituzte alderdiari jarleku bakoitzaren eman zaion ordena berean, Nafarroako Parlamentuko azken hauteskundeetan lortutako emaitza oinarritzat harturik, eta botoen % 3ko muga aintzat hartu gabe; jarlekuen kopurua, osotara, eskainitako tarteei, denetara, egiten duten kopurua izanen da eta alderdi bakoitzaren hautaketa amaituko da behin artikulu honek emandako minutuak ahitu ondoren.

Azken xedapena

Lehendabizikoa. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

D saila:
HITZARMENAK

Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofía ospitalean hartzeari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko 162. artikulua eza-eritakoa betez, Nafarroako Gobernuak ondoko hitzarmenari buruz igorri dituen agiriak Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da: "Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofía ospitalean hartzeari buruzkoa".

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko zenbait herritako ospitale-larrialdiak Tuterako Reina Sofía ospitalean hartzeari buruzkoa

Lankidetzaren Hitzarmena, Aragoiko Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Gobernuak eta Osasun Institutu Nazionalak sinatzekoa, Aragoiko Tarazonako Osasun Eskualdeko biztanleen ospitale-larrialdiak Tuterako "Reina Sofía" ospitalean hartzeari buruzkoa.

..... anaren ... an

Bildurik

Aragoiko Gobernua ordezkatzuz, Fernando Labena Gallizo jauna, Osasun, Gizarte Ongizate eta Lan kontseilaria; Aragoiko Gobernuaren 1997ko abenduaren 23ko erabakiz eman zitzaion hitzarmen hau sinatzeko baimena.

Nafarroako Gobernua ordezkatzuz, Santiago Cervera Soto jauna, Nafarroako Gobernuaren Osasun kontseilaria; agiri hau sinatzeko ahalmena

eman zitzaion Gobernuarenko erabakiaz, Nafarroako Parlamentuak baimena eman ondoren, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen bosgarren xedapen gehigarrian eta Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 26 eta 70. artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

Osasun Institutu Nazionala (INSALUD) ordezkatzuz, Alberto Núñez Feijoo jauna, Osasun Laguntzako idazkari nagusi eta lehendakari exekutiboa.

ADIERAZI DUTE

I. Administrazio publikoek lankidetzaren edo kooperazio printzipioan oinarriturik arautzen dituzte beraien arteko harremanak; jarduteko orduan, berriz, zerbitzuak kudeatzeko efizientzia eta eraginkortasun irizpideak erabiltzen dituzte. Konstituzioak eta autonomia estatutuek administrazio bakoitzari aitortzen dizkioten eskumenak gorabehera, gainerako administrazioek beren eskumenak eraginkortasunez gauzatzeko beharrezko izan daitezkeen lankidetzaren eta laguntzaren aktiboa emanez jardun beharko dute.

II. Aragoiko Autonomia Erkidegoan, Zaragozako probintzian zehazki, Tarazonako Osasun Eskualde Oinarrizkoa dago, Moncayo mendiaren magalean, nabarmen hurbilago Tuterako "Reina Sofía" Ospitaletik Zaragozako Ospitale Kliniko Unibertsitariotik baino; azken hori da, hain zuzen ere, aipatu osasun eskualdearen erreferentziako zentroa. Osasun eskualdearen hiriburua Tarazona da, eta Zaragozatik 87 Km-tara dago; Tuterara, berriz, 19 Km baizik ez dago. Tarazonako eskualdean, guztira, 14.383 biztanle daude; horietatik 10.500 Tarazonan bizi dira.

III. Egun, eskualde horretan bizi direnek larrialdi kasuetan behar duten ospitale-laguntza Zara-

goza hiriko erreferentziako ospitale publikoetan jasotzen dute; egoera horrek, alabaina, berekin dakar jendeak bidaia luzeak egin behar izatea. Hartara, halakoetan eman beharreko osasun laguntza atzeratu egiten da. Hori dela kausa, "Reina Sofía" Ospitalera jotzen dute gaixo ugari larrialdietan, hurbilago baitute.

IV. Tarazonako Osasun Eskualde Oinarrizkoaren kokapen geografiko bereziak aparteko neurriak hartzea eskatzen du, larrialdietan jendea ospitale-laguntzako zerbitzuetatik hurbilago egon dadin eta jendeak zerbitzu horiek errazago eskuratu ahal izan dezan.

V. Aipatzen ari garen osasun zerbitzua hobetzeko, beharrezkoa da agiri hau sinatzen duten hiru administrazioak lankidetzan aritzea: INSALUD, Aragoiko lurralde eremuan Gizarte Segurantzaren osasun prestazioa kudeatzeko eskumena duena den aldetik; Osasun Departamentua, Nafarroako Gobernuaren izenean, hari baitagokio Nafarroako lurralde eremuan osasun prestazioen kudeaketa; eta Osasun, Gizarte Ongizate eta Lan Departamentua Aragoiko Gobernuaren ordezkari, berak baititu osasun arloko plangintzaren arloan eta gainerako autonomia erkidegoekiko kooperazioan aritzeko eskumenak, Aragoiko Autonomia Estatutuan jasotzen den bezala (abenduaren 30eko 5/1996 Lege Organikoaz aldatutako testua), eta hari baitagokio osasun barruti deitzen ditugun demarkazioak lurralde horretan mugatu eta eratzea, Osasunari buruzko apirilaren 25eko 141/1986 Legearen 56. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Aurreko guztia dela eta, akordio honetan ezarritako printzipio eta adierazpenen barruan kokatu behar dugu hiru administrazioen arteko lankidetzatza.

AKORDIOA

Lehena. Hitzarmen honek xede du Aragoiko Gobernuaren Osasun, Gizarte Ongizate eta Lan Departamentuaren, Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuaren eta Osasun Institutu Nazionalaren jarduketa-esparrua ezartzea, Tarazonako Osasun Eskualde Oinarrizkoko biztanleek aukera izan dezaten larrialdietako ospitale-laguntza Zaragoza hiriko erreferentziako ospitalean nahiz Tuterako "Reina Sofía" Ospitalean hartzeko.

Bigarrena. Tarazonako biztanleak Tuterako "Reina Sofía" Ospitalera joan ahal izanen dira soilik larrialdiko ospitale-languntza behar dutenean, eta hala egingen da gaixoak berak nahiz haren ahaideek –bizia arriskua dagoen kasuetan– nahi dutenean, bai eta oinarrizko osasun laguntzako

edo osasun laguntza espezializatuko fakultatiboek beharrezkoa iritzita ere.

Zerbitzua erabiltzen duten gaixoak kontrolatzeko –Tarazonako Osasun Eskualde Oinarrizkoko biztanleek ez ezik biztanleria mugikorrek ere osasun laguntza eska badezake ere–, Osasun Institutu Nazionalak Osasun Eskualde Oinarrizko horretan INSALUDEko osasun prestazioak jasotzeko eskubidea duten biztanleak identifikatzeko datu-basea emanen dio Tuterako "Reina Sofía" Ospitaleari, bai eta aldizka datu-base horren gaurkotzeak ere.

Hirugarrena. Ospitale-larrialdietako laguntzak ospitaleratu nahiz ospitaleratu gabeko asistentzia hartzen ditu barne, bai eta haietatik ondoriozta daitezkeen ebakuntza kirurgikoak ere. Osasun prestazioa, betiere, Nafarroan ospitale horri atxikia dagoen biztanleriak jasotzen duen baldintza berdinetan emanen da.

Laugarrena. Aragoiko Gobernuak Osasun, Gizarte Ongizate eta Lan Departamentuak, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak eta INSALUDEk, beren eskumenen esparruan, behar diren koordinazio tresnak ezarriko dituzte hitzarmen honetan jasotako larrialdiko ospitale-laguntzako modalitateak gauzatzearren beharrezkoak diren antolamendu-neurriak hartzeko.

Bosgarrena. Tarazonako Osasun Eskualde Oinarrizkoa eta hura osatzen duten herriak Hitzarmen honetako I. eranskinean ezarritakoak izanen dira; haietan bizi diren biztanleek aukera izanen dute Tuterako "Reina Sofía" Ospitalean larrialdietako ospitale-laguntza jasotzeko.

Hitzarmen honetan ezarritakoaz baliatzen diren gaixoen behar dituzten osasun garraioen zerbitzuak, abiapuntua nahiz jomuga Nafarroako Foru Komunitatetik kanpo dutenak, Osasun Institutu Nazionalaren bitartekoekin eta haren kargura egingen dira. Horretarako, aipatu Institutuak kasu bakoitzean behar diren osasun garraiorako bitartekoak erabiltzeko behar diren gaikuntza eta prozedurak emanen dizkio Tuterako "Reina Sofía" Ospitaleari.

Seigarrena. Hitzarmen honetan aurreikusitako larrialdiko ospitale-laguntza berrantolatzeak sortutako gastuak ordaitzeko, Osasun Sistema Nazionalaren Lurraldearteko Kontseiluan ezartzen diren irizpide orokorrak eta Nafarroako Foru Komunitatearen eta Estatuaren arteko hartu-eman ekonomikoen eta zerbitzuen arloan aplikatzekoak diren irizpide zehatzak aplikatuko dira.

Zazpigarrena. Jarraipen Batzorde bat eratuko da administrazioen arteko koordinazioa bermatze-

ko eta hitzarmen honetan jasotako jarduketak gara daitezen sustatzeko. Batzordea honako hauek osatuko dute:

– Aragoiko Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.

– Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea.

– Zaragozako INSALUDEko zuzendari probintziala.

Jarraipen Batzordeko ordezkariak gainera, hartan, aditu gisa, aldeak beharrezkotzat jotzen dituzten pertsonak hartu ahal izanen dute parte.

Zortzigarrena. Hitzarmen honek sinatzen den egunetik aurrera izanen du indarra. Hasiera batean, urtebete iraunen du; gero, besterik gabe luzatuko da iraupen berdineko epetan, edozein alde, gutxienez sei hilabete aurretik, hitzarmena salatzzen ez badu.

Bederatzigarrena. Sinatzen duten aldeak, beren eremuetako osasun arduradunak diren aldetik, konpromisoa hartzen dute, hitzarmen honi amaiera ematen bazaio, osasun-prozedura eta -neurri alternatiboak ezartzeko hitzarmenak eragina duen biztanleriari larrialdietan ospitale-laguntza egokia eman dakion.

Ados daudela frogatzeko eta behar bezala jasota gera dadin, hiru aldeak agiri honetako hiruena ale sinatu dituzte, idatziaren buruan adierazitako egunean eta tokian.

Aragoiko Osasun, Gizarte Ongizate eta Lan kontseilaria. Sinatua: Fernando Labena Gallizo

Nafarroako Osasun kontseilaria. Sinatua: Santiago Cervera Soto

INSALUDEko lehendakari exekutiboa. Sinatua: Alberto Núñez Feijoo

ERANSKINA

Tarazonako Osasun Eskualde Oinarrizkoa

Herria	Biztanleak, guztira
TARAZONA,	10.557
Santa Cruz de Moncayo	102
Cunchillos	Tarazonan sartuta dago
Grisel	59
LITAGO	189
Lítuénigo	125
San Martín de Moncayo	314
MALÓN	532
Las Vierlas	102
NOVALLAS	793
TORRELLAS	347
Los Fayos	174
VERA DE MONCAYO	498
Alcalá de Moncayo	166
Añón	345
Trasmoz	80

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001. urteko aurrekontuetan sartzeko ikastetxe itunduetako langile irakasle ez direnen lansariak

NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 2001 urteko aurrekontuetan sartzeko ikastetxe itunduetako langile irakasle ez direnen lansariak”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamaiki baino lehen.

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN EDUKIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan ezarritakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaida dadin.

Ikastetxe itunduetako langileen kolektiboak –administrariak, garbitzaileak, mantetze-lanetako langileak, sukaldariak eta jantokietako langileak, gidariak eta abar biltzen ditu– Nafarroako Parlamentura jo zuen idatziz laguntza eta babes eske.

Haien ustez, administrazio publikoen eta ikastetxe itunduetako patronalaren arteko hitzarmenei buruzko erregelamenduen babesean, ez dira betetzen ari pertsona gisa beraiengan eragina duten Konstituzioaren zenbait artikulua.

Azaltzen dute argi demostraturik dagoela pertsona eta herritar direla, besteak beste, zergak ordaintzen dituztelako eta urtero errentaren aitopena egin behar dutelako. Hala eta guztiz ere, hitzarmenei buruzko aipatu erregelamenduak ikastetxe itunduetako jarduerak gauzatzeko ezinbesteko material suntsikor gisa hartzen ditu, alde batera utzita haiek pertsona direla eta berez duintasuna dutela, hartara haiek gizarterako egiten duten lanari izen ona kenduz.

Espainiako Konstituzioaren zenbait artikulua aipatzen dituzte. 9.2 artikulua ondoko dio: “Botere publikoei baldintzak bultzatzea dagozkie askatasun eta pertsona baten eta taldea osotzen dutenena benetazko eta eragileak izan daitezen; baita galerazi edo osotasuna zaltzen dituzten oztopoak eragitea hiritargoen parte hartzea erraztea bai politika mailan, bai ekonomia, kultura eta gizarterako mailan ere”.

10.1 artikulua haxe dio: “Pertsonaren duintasuna, hari dagozkion eskubide ukiezinekoak, nor-tasunaren hazkunde librea, lege begirunea eta besteekiko eskubideak ordenu politikoa eta giza bakearen oinarriak dira”.

14. artikulua honela dio: “Espainolak legearen arabera berdinarak dira eta ezin da onartu diskriminapenik, jaiotze, sexu, erlijio edo beste baldintza edo egoera pertsonal edo sozialagatik”.

15. artikulua: “Pertsona guztiek bizitza eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea dute, eta inoiz ezin dira meneratu torturetara ez eta zigor edo tratu ezgizakor edo itsusietara. Heriotza zigorra baztertuta geratzen da, salbuespen bezala gerrateetarako Harmadako zigor legeek zer erabakitzen duten albo batera utziz”.

17.1 artikulua: “Edozein pertsonak askatasun eta seguritate eskubidea du. Inori ez zaio askatasunik galeraziko, artikulua hontan agintzen dena

betetzen ez baldin bada eta beste jazoeretan legeak adierazten duen eran”.

18.1 artikulua: “Ohore, norberaren eta senitar-teko barrukotasuna eta bakoitzaren irudi eskubidea garantizatzen da”.

24.1 artikulua: “Pertsona eskubidea epaile eta auzitegietatik benetako babesa lortzeko eskubidea dute beraiei dagozkien eskubide eta interes legezkoen ihardunetan, inoiz ere babes gabe eman ahal ez izateko”.

Azkenik, 27.2 artikulua ondokoa dio: “Hezkuntzak, helburu bezala, giza nortasunaren aurreramentu osoa, bizikidetasun printzipio demokrati-koak errespetatuz eta baita behin behineko eskubide eta askatasunak ere”.

Abenduaren 18ko 2377/1985 Errege Dekretuaz onetsitako hezkuntza itunei buruzko oinarriko arauari buruzko erregelamenduak, ordea, 13.1 artikuluan hauxe dio: “Gastuetarako ezarritako zenbatekoak – administrazio eta zerbitzuetako langileen gastuak, mantentze eta zaintze gastu arruntak eta inbertsio errealak birjartzekoak ere hartzen dituzte–, baina inoiz ere ez dira zenbatesiko ez amortizazioak, ez kapital propioko korrituak ere.”

Azken urte hauetan, Estatuko Eskola Kontseiluak prestatu ohi duen “Hezkuntza sistemaren egoerari buruzko txostenak”, besteak beste ikastetxe itunduen finantzaketa ere aztertzen duenak, ondokoa dio: “Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza administrazioak premiatzen ditu Aurrekontu Orokorretako “bestelako gastuak” izeneko kontusailean bereiz ditzan administrazioiko eta zerbitzuetako langileei dagozkien ordainsariak;

halaber, ondokoa eskatzen du: behar diren neurri politiko eta aurrekontuak har daitezten langile horientzako ordainketa egin dadin”.

Aipatu dekretuaren interpretazio erreal batek berekin ekarriko luke ikastetxe itunduetan irakaskuntzan aritzen ez diren langileak mantendu nahiz zaindu beharreko “gauza” bat bezala hartzea (administrari bat arkatz bat bezala izanzen litzateke; etxezain bat telefono bat bezala; emakume garbitzaile bat erratz bat bezala); beraz, paradoxi-koa izan daiteke, besteak beste, irakasle ez diren langileek, “gauzatzat” hartzen diren horiek, urtero Ogasunari errentaren aitortpena egitea eta dagozkien zergak ordaintzea, ordainsari bat jasotzen duen pertsona orori dagokion bezala.

Ikastetxe itunduetako langileen, irakasle ez direnen, kolektiboak eginiko eskaria dela eta, gure ustez justu eta legezkoa baita, ondoko erabaki proposamena aurkezten diogu Nafarroako Parla-mentuko Osoko Bilkurari:

1. Nafarroako Gobernuak 2001eko Aurrekontu Orokorrei buruzko foru lege proiektuko ikastetxe itunduetako diru laguntzen moduluen kontusailean, “Langileak” atalean, ikastetxe horietako irakasle ez diren langileen lansariak sartuko ditu, behar diren diru-zenbatekoak atereaz “Funtzionamendu gastuak” modulutik.

2. Nafarroako Gobernuak, 2001eko urtarrilaren 1etik aurrera, zuzenean ordainduko ditu ikastetxe itunduetako irakasle ez diren langileen nominak, “ordainketa eskuordetua” gisa, irakasleekin egiten duen bezalaxe.

Iruñean, 2000ko irailaren 4an

Eleduna: Juan Cruz Alli Aranguren

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Gelazainen kidegoko funtzionarioen arteko merezimendu-lehiaketaren bidez Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza-postua betetzeko deialdia

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, besteak beste, ondoko erabakia hartu zuen:

Gelazainen kidegoko funtzionarioen artean Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza-postua betetzeko merezimendu-lehiaketa bukatu da. Deialdi hori 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Epaimahai kalifikatzaileak gainditu dutenen zerrenda eman du, eta hura ikusita eta 7. oinarrian ezarritakoa betez, ERABAKI DA:

1. Aipatu merezimendu-lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak bidali duen zerrendaren jakitun

dagoela adieraztea. Zerrendak gainditu dutenak, puntuazioaren arabera ordenatuta, biltzen ditu. Deialdi hori 2000ko maiatzaren 15eko 40 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Antonio Ansorena Urriza jauna Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi izendatzea sei urteko eperako. Interesdunak hamar egun naturaleko epea izanen du, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, burutzaren jabetza hartzeko

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2000ko irailaren 19an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. Aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2000ko irailaren 18an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena. 8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, berresten ote den Osoko Bilkuraren esku jartzea. Erregelamenduko 88. artikulua arabera, osoko eztabaida izanen du.

Bigarrena. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2000ko irailaren 20an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

8/2000 Foru Dekretua, urtarrilaren 10ekoa. Aldatzen du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

Estatuak eta Nafarroako Foru Komunitateak 1990eko uztailaren 31n sinatu zuten hitzarmeneko 27. artikulua ezartzen du Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordainarazteko Nafarroak uanean uanean Estatuan indar duten oinarritzko printzipio eta arau mamizko nahiz formazko berberak aplikatuko dituela.

Halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriak baimena ematen dio Nafarroako Gobernuari Hitzarmen Ekonomikoa Zeharbidezko Zergen Araubide Berrira Egokitzeko Akordioak agintzen duena bete dezan. Uler-tu behar da akordio horren erreferentzia Hitzarmen Ekonomiko Berriarena dela, indar hartuta baitago eta espreski deuseztatzen baitu delako egokitzea onetsi zuen maiatzaren 5eko 18/1986 Legea.

Araubide komunean onetsi da Balio Erantsiaren gaineko Zerga arautzen duen Legearen alda-

keta bat hainbat gaitan, hala nola inbertsioko urre-aren araubide berezia sartu beharra, egotzitako zerga kuota kengarriak zuzentzeko epea laburtu beharra, hainbat ondasun entrega eta zerbitzu prestaziotan tasa murriztua aplikatu beharra, nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezian oro harko prezioko konpentsazioa aldatu beharra eta azkenik, txikikako komertzioaren zerga oinarria proportzionalki finkatzeko araubide berezia kendu beharra.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legean egiten diren aldaketok araubide komunean egin direnak eransteko egiten dira.

Hori guzti hori ikusirik, Foru Dekretu bidez arau batzuk eman behar dira Nafarroan behin-behineko indar izateko, aipatu Bigarren Xedapen Gehigarriak agintzen duenarekin bat, harik eta Parla-mentuak behin betikoz onesten dituen arte, hari bidaliko baitzaizkio arauok hartu eta hurrengo hamar egunen epean.

Hori horrela, Ekonomia eta Ogasun kontsei-lariak hala proposaturik eta Nafarroako Gobernuak bi milako urtarrilaren hamarreko bilkuran hartu Erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

Artikulu bakarra.- Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzea.

2000. urteko urtarrilaren 1etik aurrera, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko artikuluetatik ondo-ren aipatzen direnak honela aldatuko dira:

Lehenbizikoa.-9.1.c). artikulua b') letra aldatzen da.

“b') Honako araubide berezi ximpletuetara jotzen duten jarduerak: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantza; inbertsioko urrearen bidezko operazioak; Baliokidetzaren erreforma.”

Bigarrena.-11.2. artikulua 12. idatz-zatia aldatzen da.

“12. Diruzko mailegu eta kredituak.”

Hirugarrena.-17.1.14 artikulua j) letra aldatzen da.

“j) Erosketa, salmenta, trukea eta antzeko operazioak baldin legezko pagabide diren dibisak, banku billeteak eta txanponak badituzte helburu, salbu eta bildumako txanpon eta billeteak eta urre, zilar eta platinozko piezak.

Aurreko idatz-zatian xedatzen dena betetzeko, bildumakotzat joko dira eskuarki legezko pagabidetzat erabiltzen ez diren edo interes numismatikoa duten txanpon eta billeteak.

Salbuespen hau ez zaie aplikatuko inbertsioko urretzat jotzen diren urrezko txanponei, Foru Lege honetako 85. artikuluko 2. idatz-zatiak ezartzen duenarekin bat.”

Laugarrena.- 21. artikuluko 2. zenbakiko laugarren leerroaldea aldatzen da.

“Foru Lege honek agintzen dituenetarako, aduanakoaz bestelako gordailu araubidea lege bereko eranskinean definitzen dena izanen da.”

Bosgarrena.-31.1.2. artikuluko b) letra aldatzen da.

“b) Maniatu gabeko urre entregak direlarik kasua, edo urrezko produktu erdi-maniatuak, 325 milesima edo gehiagoko legekoak.”

Seigarrena.-Lau urtetara murrizten da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko honako manuetan aipatzen den bost urteko epea: 35. artikuluko 1. zenbakia, 45. artikuluko 3. eta 5. zenbakiak, 46. artikulua eta 60. artikuluko 2. zenbakia.

Zazpigarrena.- 37.bat.1 artikuluko 2. idatz-zatia aldatzen da:

“2. Aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen produktuak, zuzenean nahiz beste jatorri batzuetakoekin nahasirik, prestatzeko on diren eta erabili ohi diren animaliak, landareak eta beste produktuak.

Idatz-zati honetan sartzen dira gizentzeko diren animaliak gizaki nahiz animalien kontsumorako erabili baino lehen eta haien beren, nahiz aurreko idatz-zatiak aipatzen dituen besteen hazitarako erabiltzen diren animaliak.”

Zortzigarrena.- 37.bat.1. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzen da.

“6. Zein ere aparatu edo osagarri, beira graduatuak eta lentillak barne, on baitira beren ezau-

garri objetiboei esker funtsez eta nagusiki gizakiaren edo animalien eskasune fisikoak berdintzeko erabiltzeko, bai eta eskasia horiek mugimenduen eta komunikazioaren murrizgarriak badira.

Zein ere produktu sanitario, material, ekipo edo tresna ezin baitira, objetiboki, gizakiaren edo animalien gaitzen prebentzio, diagnosi eta tratamendurako eta gaitz horiek arintzeko edo sendatzeko baizik erabili.

Idatz-zati honetan ez dira kosmetikoak sartzen eta ez norberaren higienarako produktuak.”

Bederatzigarrena.- 37.bat.1 artikuluar 10. idatz-zati berria eransten zaio.

“10. Petrolio ontziratuaren gas likuatua.”

Hamargarrena.-Lerroalde berria eransten zaio 37.bat.2 artikuluko 3. idatz-zatiari.

“Orobat zerga tasa hau aplikatuko zaie nekazaritza kooperatibek beren kooperatiba jardueraren ondorioz eta beren helburu soziala betetzeko beren kideei egiten dizkieten zerbitzu prestazioei, kideek amankomunean makineria erabiltzea barne dela.”

Hamaikagarrena.- 37.bat.2. artikuluko 6. idatz-zatia aldatzen da.

“6. Hondakinak bildu, altxatu, garraiatu, balortu edo suntsitzeko zarbitzuak, estolda publikoak garbitzekoak eta arratoiez xahutzekoak eta hondakin urak bildu edo tratatzekoak.

Aurreko leerroaldearen barne dira hondakinak biltzeko erabiltzen diren ontzi normalizatuak laga, instalatu eta mantentzeko zerbitzuak.

Bertan sartzen dira, halaber, lehor-barneko edo itsasoko uretan isurkinak bildu eta tratatzeko zerbitzuak ere.

Hamabigarrena.- 37.bat.2 artikuluko 8. idatz-zatia aldatzen da.

“8. Kirolean edo gorputz heziketan aritzen diren pertsona fisikoentzako zerbitzuak, zein ere den prestazioa egiten duen pertsona nahiz entitatea, baldin zerbitzu horiek zuzeneko lotura badute ariketa horrekin eta ez bazaie aplikatzekoa Foru Lege honetako 17.1 artikuluko 9. idatz-zatiak aipatzen duen salbuespena.

Hamairugarrena.-Bi idatz-zati berri, 14 eta 15, eransten zaizkio 37.bat.2 artikuluari.

“14. Orrazketa zerbitzuak, haien barne direla, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren tarifei buruzko 972.1 idazburuak baimena ematen dien zerbitzu osagarriak, halakorik ematen bada.

15. Bizitzarako diren eraikinetan edo eraikin parteetan egiten diren kisuskile lanak exekutatzeko baldintza hauek betetzen badira:

a) Hartzailera pertsona fisikoa izatea, ez jokatzea enpresari edo profesional gisa eta lanak egiten zaizkion etxebizitza bere erabilera partikularrean erabiltzen badu.

Aurreko lerroaldean xedatu denagatik ere, lehenengo idatz-zati horretan berean sartzen dira aipatu lan exekuzioak, hartzailea jabe-elkartea denean.

b) Obrak egiten zaizkion etxebizitza bukatuak egotea eraikitzez eta berritzez, obrak hasi baino gutxienez bi urte lehenagotik.

c) Obrak egiten dituen pertsonak ez ekartzea beretik obrak exekutatzeko materialik, edo ekarrita ere, haien kostua ez bada operazioaren zerga oinarriaren 100eko 20 baino gehiagokoa."

Hamalagarrena.- 37.bat artikuluko 3 zenbakia aldatzen da.

"3. Honako operazioak:

1. Obra exekuzioak, materialak ekarrita nahiz ekarri gabe, nagusiki bizitzarako izan diren eraikinak edo eraikin zatiak eraiki edo berritzea helburu duten sustatzaileak eta kontratistak zuzenean eratutako kontratuen ondorio direnak, bertan diren lokalak, eranskinak, garajeak, instalazio eta zerbitzu osagarriak barne direla.

Eraikin bat nagusiki bizitzarako dela adituko da baldin azalera eraikiaren gutxienez ehuneko 50 horretarako erabiltzen bada.

2. Aurreko 1. idatz-zatiak aipatu dituen eraikinetarako sukalde armarioak eta armario enpotratuak saltzea, baldin saltze hori eraikin horiek eraiki edo berritzea sustatzen duenarekin eratutako kontratuen ondorioz egiten bada.

Hamabosgarrena.- 42.1. artikuluko 2. idatz-zatia kentzen da.

Hamaseigarrena.- 47. artikuluko 1. zenbakia aldatzen da.

"1. Jarduera empresarial edo profesionalaren sektore diferentzietan jarduera ekonomikoak duten subjektu pasiboek banaka aplikatu beharko dute haietako bakoitzean kenkariak egiteko araubidea.

Zilegi izanen da banaketa proportzionalaren araua banaka aplikatzea jarduera empresarial edo profesionalaren sektore diferentzietan bakoitzean, Foru Lege honetako 9.1.c) artikuluko a') eta c') letrek agintzen dutena aplikaturik.

Foru Lege honetako 9.1.c) artikuluko b') letrak agintzen duena aplikatzearen ondoriozko sektore diferentzietan kenkari araubideak finkatzeko, aintzat hartuko da Foru Legean bertan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzaren, inbertsioko errearen bidezko operazioen eta baliokidetzaren Errekarguaren araubide berezi ximpletuetarako xedatzen dena, kasuan kasuan.

Ondasunak edo zerbitzuak amankomunean erabiltzeko erosi edo inportatzen direnean, Foru Lege honetako 50. artikuluko 2. eta hurrengo zenbakietan xedatzen dena izanen da aplikatzeko eroste edo inportatze horietan jasan diren kuotei zer kenkari portzentaje dagozkien finkatzeko, eta hartarako kasuan kasuko sektore diferentzietan egindako operazioak kontatuko dira.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen portzentajea kalkulatzeko kontuan hartuko da ez dutela kenkari eskubiderik sortzen nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren edo baliokidetzaren Errekarguaren araubide berezietan sartzen diren operazioek, eta ez araubide ximpletuan sartzen direnek ere baldin kenkari portzentajea Foru Lege honetako 68.5. artikuluko 3. idatz-zatian aipatzen direnez beste ondasun batzuei aplikatzeko zaienean.

Hamazapigarrena.- 50.2.2 artikuluko hirugarren lerroaldea aldatzen da.

"Aurreko lerroaldeetan xedatzen dena betetzeko, ez dira kontuan hartuko zerga oinarria osatzen ez duten dirulaguntzak, Foru Lege honetako 26. artikuluko 2. zenbakian xedatzen denaren arabera, FEOGA eta IFOP Europako fondoetatik finantzatuak, eta ez apirilaren 7ko 13/1982 Legeak araututako enplegu zentro berezietan jasotzen dituztenak ere, bere 43. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen dituen baldintzak betetzen badira."

Hemezortzigarrena.- 65. artikulua aldatzen da.

65. artikulua. Arau orokorrak.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergarako araubide bereziak hauek dira:

1.-Araubide ximpletua.

2.-Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia.

3.-Ondasun erabilien, arte objektuen, zaharkien eta bilduma objektuen araubide berezia.

4.-Inbertsioko errearen bidezko operazioei aplikatzeko araubide berezia.

5.-Bidai agentzietako araubide berezia.

6.-Baliokidetzaren Errekarguaren araubide berezia.

2. Titulu honetan arautzen diren araubide bereziak borondatezkoak izanen dira, salbu eta aurreko zenbakiko 4., 5. eta 6. idatz-zatietakoak, Foru Lege honetako 85.3 artikulua agintzen duena ezertan galarazi gabe.

3. Ondasun erabilien, arte objetuen, zaharkien eta bilduma objetuen araubide berezia soilik aplikatuko zaie Foru Lege honetako 109.1 artikuluko 1. artikuluan aurreikusten den deklarazioa aurkeztu duten subjektu pasiboak. Deklarazio hori subjektu pasiboak zergarekin lotzen dituzten jardueren hasierari buruzkoa da.

4. Araubide berezi ximpletua eta nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide berezia aplikatu egingen dira subjektu pasiboak espreski uko egin ezean. Uko hori erregelamenduak agindu bezalako epe eta moduan egin beharko da.

Ondasun erabilien, arte objetuen, zaharkien eta bilduma objetuen araubide berezia subjektu pasiboak uko egin ezean aplikatuko da. Zilegi izanen da uko hori operazio partikular bakoitzean egitea, Administrazioari espreski aditzera eman gabe.

Hemeretzigarrena.- 66. artikulua aldatzen da.

“66. artikulua. Operazio bolumena nola finkatu.

1. Foru Lege honetan agintzen dena betetzeko, hauxe aditzen da operazio bolumenaz: subjektu pasiboak aurreko urte naturalean egindako ondasun entregean eta zerbitzu prestazioen zenbateko osotik (zergatik salbuetsita daudenak barne) Balio Erantsiaren gaineko Zerga bera eta, hala tokatzen bada, baliokidetzeta eta oro harko prezio-konpentsazioa kenduz kalkulatzeko dena.

Ondare enpresarial edo profesional bat osorik edo partez eskualdatzen denean, subjektu pasibo erostunak kontaktu behar dituen operazioen bolumena kalkulatzeko erantsi egingen zaio subjektu pasibo horrek aurreko urte naturalean egindako bolumenari eskualdatzaileak eskualdatu dituen ondare zatiari dagokionez epe ber hartan egin duen operazio bolumena.

2. Operazioak egindakotzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga sortzen denean edo hala tokatzen bada, sortu denean.

3. Honako operazioak ez dira kontuan hartuko operazio bolumena finkatzeko:

1.-Higiezinak aldian behin entregatzea.

2.-Eskualdatzaileari dagokionez inbertsiokotzat deklaratu diren ondasunak entregatzea, Foru Lege honetako 54. artikulua agintzen duen bezala.

3.-Foru Lege honetako 17.1 artikuluko 14. idatz-zatian aipatzen diren finantz operazioak, salbuetsi gabekoak ere barne, eta Foru Lege honetako 85.2 artikuluan sartzen diren inbertsioko urrearen bidezko operazioak, baldin batak zein besteak ez badira ohikoak subjektu pasiboaren jarduera enpresarial edo profesionalen.

Hogeigarrena.- 75. artikuluko 5. zenbakia aldatzen da.

“5. Artikulu honetako 3. zenbakiak aipatzen duen oro harko prezio-konpentsazioa kalkulatzeko, ehuneko 5 aplikatuko zaio zenbaki horretan aipatzen diren produktu edo zerbitzuen salmenta prezioari.

Prezio horiek finkatzeko ez dira kontatuko operazio horiek kargatzen dituzten zeharbidezko tributuak eta ez gastu bidenabarko edo osagarriak, hala nola komisioak, enbalajeak, porteak, garraioa, aseguruak edo finantza gastuak, erostunari banaka kargatzen baitzaizkio.

Diru kontraprestaziorik gabe egindako operazioetan portzentaje hori entregatu diren produktuen merkatuko balioari aplikatuko zaio.

Hogeita batgarrena.- 2. zenbaki berria erantsen zaio 81. artikuluari, eta artikulua horren oraingo testua 1. zenbakia izanen da.

“2. Araubide berezi hau ez zaio inoiz aplikatuko Foru Lege honetako 85. artikulua definitzen duen inbertsioko urreari.”

Hogeita bigarrena.-Idazkera berria ematen zaio VIII. Tituluko V. Kapituluari:

V. KAPITULUA

Inbertsioko Urrearen araubide berezia

85. artikulua. Inbertsioko urrearen kontzeptua.

Foru Lege honetan xedatzen denerako, honakoak hartuko dira inbertsioko urretzat:

1.-995 millesimako edo gehiagoko legea duten urre xaflak edo lingoteak, haien pisua Foru Lege honetako eranskineko idatz-zatian agintzen denaren arabera bada.

2.-Honako baldintzak betetzen dituzten urretanponak:

a) 900 millesima edo gehiagoko legea izatea.

b) 1800. urteaz geroztik eginak izatea.

c) Jatorriko herrian erabilera legaleko dirua izatea edo izana.

d) Eskuarki merkaturatze prezioa ez izatea duten urrearen merkatu balioaren ehuneko 80 baino gehiagokoa.

Nolanahi ere, urteroko abenduaren 1a baino lehen zerrenda bat argitaratuko da “Europako Erkidegoetako Aldizkari Ofizialean”, C sailean eta bertan ageri diren monetek baldintzak betetzen dituztela ulertuko da; bete ere, zerrenda argitaratu ondoko urte naturalean, eta bai hurrengoetan ere lehenago argitaratu zerrenda aldatzen ez bada.

85 bis artikulua. Salbuespenak.

1. Honako operazioak salbuetsirik daude zerga honetatik:

1.-Inbertsioko urrea entregatu, Komunitate barrurako erosi eta inportatzea. Entregatzat jotzen dira, eta beraz salbuetsirik daude, maileguak eta finantza trukeko operazioak, eta etorkizuneko edo eperako kontratuetatik sortzen diren operazioak, baldin eta haien helburua, kasu guztietan, inbertsioko urrea bada eta baldin urre horren gaineko erabilera eskubidea eskualdatzen badute.

Aurreko lerroaldekoa ez zaie honako kasuei aplikatuko:

a) Inbertsioko urrea helburu duten zerbitzu prestazioei, artikuluko 2. idatz-zatiak agintzen duena ezertan galarazi gabe.

b) Inbertsioko urrea komunitate barrenean erostea, baldin entrega egin duen enpresariak uko egin badio Jatorriko estatu Europarrean entrega horretarako aurreikusten den araubide bereziko zerga salbuespenari.

2.-Salbuetsitako operazioen arteko bitartekotza zerbitzuak aurreko 1. idatz-zatiaren arabera, besteren izenean eta besteren kontu eman badi-ra.

2. Baldin entrega bat berari bai agindu honetan arautu den salbuespena eta bai Foru Lege honetako 22. artikuluan aipatzen dena ere aplikatzeko bazaizkio, agindu honetan arautu dena aplikatuko zaio, non eta uko egiten ez zaion, 85.3 artikuluko 1. zenbakiak agintzen duenaren arabera.

85.3 artikulua. Salbuespenari uko egitea.

1. Eskualdatzaileak zilegi izanen du inbertsioko urrearen entreei aplikatzeko zaien eta Foru Lege honetako 85.2 artikuluko 1. idatz-zatiak aipatzen duen zergaren salbuespenari uko egitea, erregelamenduak agintzen dituen modu eta baldintzekin eta beti ere honako baldintzak betetzen badira:

1.-Eskualdatzailea eskuarki aritzea Inbertsioko urrea produzitzeko jardueretan edo Inbertsiokoa

ez den urrea inbertsioko urre bihurtzekoetan, beti ere baldin entrega horren helburua aipatu jardue-ra horietatik heldu den urrea bada.

2.-Erostuna izatea bere enpresa edo profesio jardueren barrenean aritzen den enpresaria edo profesionala.

2. Zilegi izanen da Foru Lege honetako 85.2.1. artikuluko 2. idatz-zatiak aipatzen dituen bitartekotza zerbitzuen gaineko zergari uko egitea beti ere baldin bitartekotza zerbitzuaren hartzailea bere enpresa edo profesio jardueren barrenean aritzen den enpresaria edo profesionala bada, erregelamenduak agintzen dituen modu eta baldintzetan eta beti ere baldin uko egiten bazaio bitartekotza zerbitzuak helburu duen Inbertsioko urrearen salbuespenari.

85.4. artikulua. Kenkariak.

1. Foru Lege honetako 38. artikuluko Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak ez dira kenkari izanen kuota horiek ordaintzearen arrazoi diren ondasun edo zerbitzuak inbertsioko urrearen entregak egiteko erabiltzen badira, Foru Lege honetako 85.2 artikulua agintzen duen moduan.

2. Aurreko zenbakian xedatu denaren salbuespen, zenbaki horrek aipatzen dituen Inbertsioko urrearen entregak egiteak eskubidea emanen du honako kuoten kenketa egiteko:

1.-Urre hori erosteak izan dituenak, urre entregatzaileak 85.3 artikuluko 1. zenbakiak arautzen duen salbuespenari uko egin badio. Aurreko lerroaldean xedatzen dena aplikatzeko izanen zaie Inbertsioko urrea komunitate barrenean erosten den kasuetako kuotei ere baldin eta entrega egiten duen enpresariak uko egin badio jatorriko estatu Europar Batasunekoan entrega horretarako aurreikusita dagoen araubide bereziko salbuespenari.

2.-Urre hori erosi edo inportatzeko izan diren edo pagatu diren kuotak, baldin urre horrek, erosi edo inportatu zen momentuan, inbertsioko urretzat jotzeko baldintzak betetzen ez bazituen, eta entrega salbuetsia edo bere kabuzkoa egiten duenak berak bihurtu badu inbertsioko urre.

3.-Urre horri forma, pisua edo legea aldatzen dioten zerbitzuek izandako kuotak.

3. Orobat, aurreko 1. zenbakian xedatu denaren salbuespentzat, zergaz

salbuetsitako inbertsioko urrea berek zuzenean produzituz edo eraldatuz erdietsi duten enpresariak berek egiten dutenean urrearen entrega, horrek eskubidea emanen du produzitze edo eraldatze horrekin lotutako ondasun eta zerbitzuak

erosi edo inportatzeagatik izan diren edo pagatu diren Zergaren kuoten kenketa egiteko.

85.5 artikulua. Subjektu pasiboa.

85.3. artikulua aipatzen duen salbuespen-ukoa egiteagatik kargatzen diren eta inbertsioko urrearen entreegi dagokien zergaren subjektu pasiboa, kargapeko operazioaren hartzaile den enpresaria edo profesionala izanen da.

Hogeita hirugarrena.-VIII. tituluko VII. kapituluaren aldaketa.

1.-VIII. tituluko VII. kapituluaren aldatzen da.

“VII. KAPITULUA

Baliokidetza errekaruaren araubide berezia”

2.-VIII. tituluko VII. kapitulu honako ataletako tituluak kentzen dira: 1. “Xedapen Komunak”, 2. “Zerga oinarria proportzionalki finkatzeko araubide berezia” eta 3. “Baliokidetza errekaruaren araubide berezia”.

3.-93. artikulua aldatzen da.

“93. artikulua. Baliokidetza errekaruaren araubide berezia.

1. Baliokidetza errekaruaren araubide berezia txikizkako komertzianteei aplikatuko zaie baldin eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan Errenta egozpen araubidea duten pertsona fisiko edo entitateak badira eta erregelamendu bidez finkatzen diren sektore ekonomikoetan aritu eta erregelamenduetako baldintzak betetzen badituzte.

2. Araubide berezi hau aplikatzekoa zaion subjektu pasiboak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren peko beste jarduera batzuk egiten baditu, beti ere jarduera ekonomikoko sektore diferentziatuztat joko da araubide berezi horren peko txikizkako merkataritza hori.

3. Zilegi izanen da erregelamendu bidez finkatzea zein artikulua edo produktu merkaturatzea salbuetsita egonen den araubide berezi horretatik.”

4.-95. artikulua (“Zerga oinarriak proportzionalki finkatzeko araubide berezia”) 96.a (“Zerga oinarriak proportzionalki finkatzeko araubide bereziaren salbuespenak”), 97.a (“Zerga oinarriak proportzionalki finkatzeko araubide bereziaren edukia”) eta 98.a “Baliokidetza errekaruaren araubide berezia”) indargabetzen dira.

Hogeita laugarrena.-110. artikuluko 1. zenbakia aldatzen da.

“1. Foru Lege honetako 31.1.2. eta 85.5. artikuluek aipatzen dituzten kasuetan, eta lege bere-

ko 13.1. artikulua zehaztu dituen komunitate barreneko erospenetarako, operazio bakoitzeko frogagiri kontablearekin batera zergaren likidazioa ageri duen dokumentu bat ere aurkeztuko da. Dokumentu horrek erregelamendu bidez finkatzen diren baldintzak bete behar ditu.”

Hogeita bosgarrena.-Zazpigarren idatz-zati berria erantsen zaio Foru Legearen eranskinari.

“Zazpigarrena.-Urre lingoteek edo xaflek behar duten pisua, inber- tsioko urretzat hartuko badira.

Foru Lege honek agintzen dituenetarako, Inbertsioko urretzat joko dira 995 milesima edo gehiagoko legea duten urre lingoteak edo xafak, honako pisuetako batean sartzen badira, lingote merkatuek onartzen duten moduan:

12,5	kilogramo
1	kilogramo
500	gramo
250	gramo
100	gramo
50	gramo
20	gramo
10	gramo
5	gramo
2,5	gramo
2	gramo
100	ontza
10	ontza
5	ontza
1	ontza
0,5	ontza
0,25	ontza
10	tael.
5	tael.
1	tael.
10	tola.”

Xedapen iragankorra

Mantendu egiten da bost urteko epea Balio Erantsiaren gaineko Zergan zenbait kuota kendu edo konpentsatzeko.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak pagatu dituzten subjektu pasiboek, kuota horien kenkari eskubidea 1995. urtean sortua bazen, zilegi izanen dute kuota horien kenketa egitea, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko VII. Tituluko I. kapituluak agintzen duen bezala, 2000. urteko likidazioari dagozkion deklarazio-likidazioetan.

2. 1995. urtean aurkeztutako deklarazio-likidazioetatik heldu diren kuotak konpentsatzeko dituzten subjektu pasiboek zilegi izanen dute konpentsazio horiek 2000. urtean Balio Erantsiaren gaineko Zergarako aurkeztu behar diren deklarazio-likidazioetan egitea.

Xedapen indargabetzailea

Foru Dekretu honek indar hartzen duenean, indargabetuko da urtarrilaren 19ko 5/1998 Foru Dekretuko hirugarren Xedapen Iragankorra (Foru Dekretu horrek aldatu egiten du Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko

19/1992 Foru Legea). Halatan, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-oinarriko osagai ez diren dirulaguntzei, 1998ko urtarrilaren 1 baino lehen emanak, honako aginduak aplikatuko zaizkie: Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legeko 48. artikuluko 1. zenbakia, 50. artikuluko 2. zenbakiko 1 eta 2. idatz-zatiak, eta 52. artikuluko 1. zenbakia.

Azken xedapena

Foru Dekretu honetako arauak behin-behinekoak dira harik eta Nafarroako Parlamentuak onesten dituen arte.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.200 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 145 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 180 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
--	--